AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1681

AGINDUA, 2013ko martxoaren 20koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Braulia Fernández Basterra andreak Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkaria kargutik kentzea xedatzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Braulia Fernández Basterra andreak, berak hala eskatuta, Administrazioan beste lanpostu batera joateagatik, Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkaria kargutik kentzea (520010 kodea, 52 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu uzte honek 2013ko apirilaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, eman duen organoaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 20a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.